


LUDWIG WITTGENSTEIN

XX. MENDEKO FILOSOFIA


1. **DATU BIOGRAFIKOAK ETA TESTUINGURU HISTORIKOA**
2. **TESTUINGURU FILOSOFIKOA: FILOSOFIA ANALITIKOA**
3. **HURBILKETA OROKORRA XX. MENDEKO FILOSOFIEI**
4. ***TRACTATUS*-A: MUNDUA, PENTSAMENDUA ETA HIZKUNTZA**
5. ***TRACTATUS*-A: PROPOSIZIO EGIAZKOAK, PROPOSIZIO ZENTZUDUNAK ETA PSEUDO-PROPOSIZIOAK**
6. ***IKERKETA FILOSOFIKOAK*: ERABILERA ETA HIZKUNTZA-JOKOAK**
7. **FILOSOFIAREN FUNTZIOA TRACTATUS ETA IKERKETA FILOSOFIKOAK-EN**
8. **ETIKA WITTGENSTEINEN PENTSAMENDUAN**

1. DATU BIOGRAFIKOAK ETA TESTUINGURU HISTORIKOA

- Viena, 1889, jatorriz judua zen familian (Europako aberatsenetarikoa).
- 9 anaia-arrebetan gazteena. 3k beren buruaz beste; beste bat pianista ospetsu.
- Ikasketak: Ingeniaritza Berlinen, Aeronautika-ingeniaritza Manchesterren.
- Matematikak eta Russellen *Principia Mathematica*k liluratuta, 1911n Russelli bisita Jenan. Hark aholkatuta logika ikasi. Elkarrekin 2 urtez.
- 1914an Norvegiara. Bere eskuz egindako etxola batean bizi. I. MG hasi; Austriako armadan izena eman.
- 1917an preso hartu; 9 hilabete kontzentrazio-esparru batean. *Tractatus logico-philosophicus* lanaren lehen zirriborroak.



- 1920-26, irakasle Austriako Alpeetako herri txikietan; lorezain-laguntzaile; eraikuntzalanak diseinatzen Austrian.
- 1925-27 artean Vienako Zirkuluko analistekin elkartu maiz.
- 1929an Cambridgera: *Tractatus*-a doktore-tesi moduan aurkeztu. Filosofia irakasle.
- 1940an II. MG, erizain-laguntzaile, Ingalaterraren alde.
- 1944-47, Cambridgen irakasle. Gogaituta, irakasle lana utzi.
- 1950ean minbizia diagnostikatu. Vienara itzuli bere idazlanak ordenatzera eta argitaratzeko aginduak ematera.
- Berriz Cambridgera. 1951n hil.
- 1953an argitaratu zen *Ikerketa filosofikoak*, bere bigarren lan handia, beste batzuekin batera.



- Gertakari historiko azkar eta konplexuen lekuko: **Lehen Mundu Gerra** (1914-18) eta **Bigarren Mundu Gerra** (1939-1945).
- Ondorio lazgarriak Europan: hildakoak, zaurituak, herrialdeak zorpetuta, ezkortasuna...
 - Ilustrazio garaiak sortu zuen aurrerapenaren ideiaren aurka, bi gerrek agerian utzi zuten arrazoiaren alde ikaragarria.
- Viena Europako hiri distiratsuenetako bat zen (aristokratak, artistak...) baina:
 - Langileen egoera oso txarra; ondorioz, tentsio soziala.
 - Tentsio politikoa (Alemaniar- Austriar nazionalismoak; burgesak vs aristokratak)
 - Etsipena eta irtenbiderik ezaren sentipena zabaldu intelektualengan.




2. TESTUINGURU FILOSOFIKOA: FILOSOFIA ANALITIKOA

- **Ingalaterran** XX. m. hasieran hasi, eta AEBtara zabaldu zen korrontea.
- Filosofia tradizionalaren aurka, ez dute filosofia espekulatzailerik nahi; **idealismo neohegeliarraren aurkako erreakzioa**.
 - Errealak ez da pentsamenduak sortzen duena, **gertakariak** baizik: aurrean duguna, pentsamendutik independentea.
- **Filosofia empirista** du oinarri, **zientziarekin** batera diharduena.
- **Hizkuntza naturala aztertzen** dute, errealitatea ulertzeko erreferentzia nagusitzat hartuta. Filosofiaren objektua hizkuntzaren analisia da:

“ez dago arazo filosofikorik, hizkuntza-arazoak baizik”

Wittgenstein

- Filosofia honen **metodoa** ez da sintetikoa (subjektuaren eta predikatuaren batasuna); **analitikoa** baizik (osotasun baten deskonposizioa). Unibertsoa ez da osotasuna, zatiketa baizik, eta elementuen bidez eratzen da, atomoen bidez.
- **Jarrera antimetafisikoa**. Zientifikoki egiaztatu daitezkeen enuntziatuek soilik dute esanahia; hori enuntziatu zientifikoek soilik betetzen dute, beraz, ukatu egiten dituzte enuntziatu metafisikoak; faltsuak eta zentzugabeak dira.



Metafisikak
errealitatearen osotasuna
aztertzen du, esentzia.

- **Hiru fase** bereizten dira Filosofia analitikoaren baitan:

a) **Filosofia analitikoaren hastapenak: Moore, Russell, Wittgenstein.**

- **Moore:** filosofia arazoak konpontzeko **hizkuntzaren analisi zorrotza** egin behar da.
- **Russell: atomismo logikoa:** Mundua gertakari atomikoek osatzen dute. Gertakariei proposizio atomiko bat dagokie hizkuntzan.
- **Wittgenstein:** atomismo logikoaren ideian oinarrituz, mundua-pentsamendua-hizkuntzaren arteko lotura aztertu zuen. Esan daitekeena ahalik eta argien esateko hizkuntza perfektu modu bat erabiltzearen alde: errealitatearen **ispilu lana egingo duen hizkuntza.**



b) Enpirismo logikoa/ Neopositibismoa. Vienako Zirkulua.


- Vienan elkaturiko hainbat zientzialarik, filosofok eta matematikaririk osatua.
- Wittgensteinen Tractatuseko ideien jarraitzaile.
- Enpiristak dira, eta metafisikaz hitz egitea ezinezkotzat dute.
 - Metafisikaren arazoak hizkuntza gaizki erabiltzearen ondorio dira.
- Filosofiaren zeregina teoria zientifikoak logikoki aztertzea izan behar du.

c) Filosofia analitikoa (2. Wittgenstein).

- Wittgensteinen *Ikerketa filosofikoak* laneko ideien jarraitzaile.
- Hizkuntza perfektuaren ideia alboratuta, hizkuntza arruntarekiko interesa.
- Hizkuntzak ez du errealitatea errepresentatzen; hizkuntza komunikazio-trena eta jokabide gisa hartzen du. Ikuspegi pragmatista.

3. HURBILKETA OROKORRA XX. MENDEKO FILOSOFIEI

- XIX. mendean hasten den zientzia partikularren emantzipazio-prozesuak **krisia eragiten du filosofian**. Filosofia eremua galduz doa pixkanaka.
 - Natura zientziez gain giza zientziak ere emantzipatzen dira.
 - XX. m.an ezbaian jartzen da Filosofiaren zeregina.
- Filosofiari ematen dioten esanahiaren arabera, bi korrante handi bereizten dira XX. mendean: **filosofia analitikoa** eta **filosofia kontinental**.



Filosofia kontinentalaren barruan, eskola hauek nagusitu ziren:

a) Existenzialismoa:

- Gizakiaren baldintzak aztertu: **askatasuna, erantzukizuna, bizitzaren zentzua...**
- **Gizabanakoaren existentzia** da oinarria: ez dago gizakia definitzen duen esentzia bat; gizabanakoaren **ekintzek definitzen dute** gizaki bakoitza.
- Gizakia **erabat askea** da eta bere **ekintzen erabateko erantzule**.
- Gizakiaren **dilemei, kontraesanei, absurdoei zentzua** emateko saiakera.
- Sartre, Simon de Beauvoir, Camus, Heidegger...



«Gizakia aske izatera
kondenatuta dago»

Sartre

b) Frankfurteko eskola:


- Helburua ezkerreko **teoria sozial eta politiko kritikoa** sortzea.
- **Marxismoa eguneratu** nahi dute, kapitalismoaren kritika zorrotzagoa egiteko.

Freuden **psikoanalisiak** eragin handia, esaterako.

- **Habermas**: Marxek lan arlora murriztu zituen gizakien arteko elkarreraginak.


Ekoizpen harremanez gain, **elkarreragin komunikatiboa** ere badago. Gizakia teknikoa eta soziala da.

- **Teknikak** naturarekiko emantzipazioa dakarkio gizakiari; **elkarreragin komunikatiboa** ere emantzipazio eta autonomia proiektu baten abiapuntua da.



c) Fenomenologia:

- **Husserl:** gizakiak zientzia egiteko duen modua aztertzen du.
- **Objektuaren eta subjektuaren artean badago lotura bat.**




d) Estrukturalismoa:

- Fenomenologiaren eta existentzialismoaren aurka, **egituraren boterea eta indarra** jartzen du subjektuaren boterearen eta gizakiaren askatasunaren gainetik.
- **Foucault:** kultura bat elkar erlazionatzen diren **elementuek osatzen duten sistema** konplexu bat da.
- Saussure, Levi-Strauss.



e) Hermeneutika:

- “Hermeneutika” terminoak interpretazioa esan nahi du.
- **Gadamer**: gizakia munduaren ikuskera baldintzatzen duten **esanahi eta balioen mundu** batean bizi da.
- Mundua **ezagutzea interpretatzea da**.



«Hainbat norbanako, hainbat ikuspuntu, hainbat interpretazio» Ortega y Gasset



f) Postmodernitatea:

- Asmo modernoari egindako **kritika**, ilustrazioko printzipioen bidez gizarte aurrerapena lortzeko asmoari: **ez dago ezagutza ziurrik, ez dago aurrerapenik**.
- **Lyotard**: gizarte postmodernoarene helburua ez da egia ezagutzea; **errentagarritasun ekonomikoa** baizik.